

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, PORTUGALETEKO UDALAREN 2020KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen joan den maiatzaren 26an Portugaleteko Udalaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazio txostena.

2020ko **Urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** eman du, nahiz ez dagoen Egoeraren Balantzeko Ibilgetu Materialaren eta Lurraren Ondare Publikoaren eta Ondasun eta Eskubideen Udal Inbentarioaren saldoen arteko aldearen xehakapenik.

Fiskalizatutako Kontu Orokorrak erakutsitako **egoera finantzarioari dagokionez**, HKEEk adierazi du Udalak 4,7 milioi euro murriztu duela zorra eta Diruzaintza Geldikinak 3,4 milioi euro egin duela gora.

Udalaren Kontu-hartzaitzaren txostenak adierazi du **bete direla aurrekontuaren egonkortasun, gastuaren arau eta finantzaren iraunkortasun helburuak.**

Udalak **zuzentasunez** bete du 2020an jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautu duen **lege-araudia**, nahiz unean uneko akatsak azaleratu diren administrazioko kontratazioan: hornidura-kontratu bat egikaritzen jarraitu da 2019an iraungi ondoren, eta gastuak dagokion prozedura izapidetu gabe egikaritu dira; eta sarreretan: Osoko Bilkurak ez ditu tarifak onartu.